



Garazi Lekunberri
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Iñigo Ibareguren	2
Sarrera	2
 <i>Triangelu irristakorra</i>	
• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Istorioa (gertaera nagusiak)	4
• Egituraketa	6
• Pertsonaiak	7
• Baliabideak	10
• Iritzia	12
 Bibliografia - Webgrafia	 14

Iñigo Iburguren

Iñigo Iburguren 1979an Azpeitian (Gipuzkoa) jaiotako euskal idazlea da.

Gaztetatik datorkio irakurzaletasuna Iburgureni. 17-18 urte zituela hasi omen zen eleberriak “irensten”, harik eta 24-25 urte zituela zerbait idazteko gai izango ote zen bere buruari planteatzen hasi zitzaion arte: “Azkenean kate moduko bat da. nire kasuan irakurzaletasunak idazteko gogo piztu zidan eta animatu egin nintzen”, oroitu ditu bere hastapenak irakurle eta idazle moduan.



Kate horri tiraka, *Triangelu irristakorra* hirugarren narrazio luzea du dagoeneko. Bere lehen eleberria, *Malanjeko taupaden atzetik*, Angolako herri txiki bateko istorioak hizpide dituen eleberria da, baina internet bidez plazaratu zuen soilik. Haren ostean etorri zen *Iraganaren pisua* autoedizio moduan, ermita txiki batera sekretu batekin heltzen den gazte baten istorio bat du ardatz. Azken hau, Gaumin argitaletxearen bitartez kaleratu du. Bestalde, tarteka, uztarriako webgunean iritzi artikuluak ere idatzitakoa da.

Sarrera

Triangelu irristakorra Iñigo Iburgurenek idatzitako eleberria da, 2013an argitaratu zen Azpeitian, bere herrian bertan. Edizio bakarra plazaratu da oraingoz, baina paperezko liburu bihurtu izanak jende gehiagok irakurri ahal izatea ahalbidetu dio.

Obra nobela bat da. Berrogei urte inguruko hiru protagonistaren istorioa kontatzen du; bi gizon eta emakume batena. Horietako bat Kepa da, gizon ezkondua eta bi alabatxoren aita, itxuraz bederen familia bizimodu egonkorra duena. Bestetik Alazne dago, barneko hutsunea beteko dion maitasuna bilatu gura duen ile apaindegiko langilea. Beñat da triangeluaren azken ertza, telefonia enpresa handi batean lan egiten duen maila ekonomiko altuko ezkongabea. Liburuaren hasieran pertsonaiak ez dira ezagutzen, eta beraien bizitza norabide bakar batean doala dirudi. Baina pixkanaka beraien artean harremanak sortu eta korapilatzen hasten dira, beraien inguruko arazo eta gorabeherak agertzen direlarik. Haur txikiak ere badituzte, eta haiek, arazoak daudela konturatzen diren arren, ez dira gertatzen ari dena ondo ulertzeko gai. Istorio nagusiaren atzean, ordea, arrazismoa, tratu-txarrak eta beste zenbait gai ezkututzen dira.

Horrela, XX-XXI. mendeko denboraren menpeko bizimodua islatzen du istorioak, baina batzuetan denboran salto egin eta aspaldiko zenbait kontu ere eskaintzen dizkigu.

TRIANGELU IRRISTAKORRA

Kokapena

Lehen azaldu bezala, istorio hau gaur egunean dago kokatuta. Kontakizunak zer iraupen duen zehatz ez badakigu ere, pare bat hilabeteko kontua dela ondoriozta dezakegu.

Euskal Herriko hiri batean dago kokatua, nahiz eta zeinetan zehazten ez den, izan ere, Bilbo aipatzen du, besteak beste. Gertaera nagusienetariko batzuk abeletxe ostatuan eta emakumeak babesteko harrera-etxe batean gertatzen dira.

Besteak beste, bikote harremanak, heldu-haur harremanak, familia, fideltasun eza, tratu txarrak, immigrazioa, maitasuna, bakardadea, norbera onartzea... dira obra honetan tratatzen diren gaietako batzuk.

Gainera, esan daiteke “guztiz errealak” direla eleberri honetako pertsonaiak, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte eta horiei buelta ematen ahaleginduko dira. Horrela ba, bizitzak jartzen dizkien bidegurutzeen aurrean zirt edo zart egin beharrean ikusiko du bere buru hirukote honek.

Bestetik, narrazioa burutzeko, lehenaldiko narratzaile aktorea erabiltzen da. Hiru narratzaile desberdin bereiz daitezke, protagonistetako bakoitza da narratzaile bat. Beraz, liburuko pertsonaia nagusiak dira ekintzen berri ematen digutenak, betiere, lehenaldiko denbora erabiliz, bizi dituzten arazoak kontatzen ari balira bezala. Azpimarragarria da, hortaz, istorioan zehar narratzailea aldatuz doala etengabe.

Gaia

Giza harremanetan sortzen diren tira-birak eta gizartean pil-pilean dauden gaiak, inmigrazioa eta tratu txarrak kasu.

Argumentua

Kepa, Beñat eta Alazneren bizitzetako gertaerak nahasten joango dira, berrogei urte inguruko hiru ezezagun horien bizitzak. Elkar ezagutu ahala, euren ilusio, beldur eta esperantzak azaleratu eta korapilatzen doaz. Kepak nahiko lan izango du familiako harremanak zaintzen. Beñatek ezusteko itzela izango du aurrez aurre eta Alazne, aldiz, barneko hutsunea beteko dion zerbaiten zain egongo da. Hirurek erabakiak hartu beharko dituzte etengabe, onerako edo txarrerako, bakoitzak bere bizitzaren norabidea aurkitzea helburu izango duelarik.

Istoria (gertaera nagusiak)

1. Kepa eta bere emaztearen artean gauzak ez dabilta ondo azken aldian, euren arteko harremana gero eta hotzago dago. Beñatek arazoak ditu lanean, telefonia konpainiari bolada txar bat datorkiola dirudi. Alazne, bestalde, kokoteraino dago ile apaindegiko lanaz eta behin baino gehiagotan pasa zaio burutik lana pikutara bidali eta beste zerbaiti ekitea.
2. Maitek, Keparen emazteak, istripu bat izango du N-12 errepidean.
3. Arrebak erdi abandonatuta duela aurpegiratzen dio ahal duen guztietan Beñati. Ezustean bisitatxo bat egitera joango zaio Beñat eta heldzean arrebaren etxeko argiak piztuta ikusiko ditu, baina txirrina jo eta ez dio inork erantzungo. Lehenago argia piztuta zegoela ikusi arren, metro batzuk atzera egin eta argia itzalita dagoela ikusiko du. Azkenik, etxe albotik berriro pasa eta piztuta ikusiko ditu berriro. Arraroegia irudituko zaio besterik gabe uzteko.
4. Kepa ospitalera joango da emaztearen istripua dela eta hor Alazne ezagutuko du.
5. Beñat gurasoen etxera joango da Aitziberren alaba den Aloñaren zorion festara. Jonek, Aitziberren senarrak, behin bere arreba jipoitu zuela kontatuko dio bere aitak. Bi urte zeraman isilik, baina semeak jakiteko garaia duela usteko du.

6. Aste beterren buruan, Aitziberren etxera joango da berriro Beñat. Azkenaldian bisita asko egiten ari zaiola eta, Aitziberrek, zerbait ezkututzen ari zaionaren susmoak izango ditu. Beñatek dena dakiela esango dio eta orduan, Aitziberrek guztira hiru aldiz jo duela aitortuko dio bere nebari.
7. Aitorpen horien ondoren, lehenbizi, biak elkarrekin Joni salaketa ipintzera joango dira. Gero, lanean dagoela aprobetxatuz, Aitziberrek eta seme-alabek etxean dituzten gauza garrantzitsu eta behar-beharrezkoak hartu eta emakumeak babesteko harrera-etxe batera joango dira, babes bila.
8. Ostiral arratsalde batean, Kepa Alazneren ile-apaindegira joango da. Agurtzeko ordua iristeko momentuan, Alaznek taberna batera zerbait hartzera gonbidatuko du. Bertan, berezia den zerbait sentitzen duela beragatik eta berarekin oheratu nahi duela aitortuko dio Alaznek. Astebete emango dio Kepari gauzak lasai pentsatzeko eta berarekin oheratu nahi izanez gero hurrengo astean berriro tabernan azaltzeko eskatuko dio.
9. Kepa, zalantza batzuk izan arren, tabernan azalduko da hurrengo ostiralean, Alaznek ostatu batera eramango du eta han desioz betetako uneak igaroko dituzte elkarrekin.
10. Egun batzuen buruan, Kepak beste neska batekin oheratu zela esango dio Maiteri. Aitorpen hori entzun eta Maitek azken bi urteotan gizon batekin harremanetan ibili dela esateko adorea izango du. Ondorioz, banatzea erabakiko dute.
11. Alazne diskoteka batera joango da bere lagun Olatzekin gau batean eta bertan Beñat ezagutuko du. Berarekin gustura eta eroso sentituko da eta azkenean, mutilaren etxean amaituko dute gaua.
12. Bitartean, Jonen berri gutxi izaten jarraituko du Aitziberren familiak, komisarian deklaratzera joan zenetik ez dute bere arrastorik izango. Beñat Aitziberri bisita egitera joango da aterpetxera eta egoeraren berri ematera. Bertakoek afaltzera gonbidatuko dute eta erakargarria irudituko zaion emakumea ezagutu du afarian, Sandra.
13. Afariaren ondoren, etxera itzuli eta Beñatek, sarraila ireki bezain pronto, altzairuzkoa ematen duen objektu baten kolpea jasoko du kokotean. Lurrera erori eta hiru kolperen ostean konorterik gabe geratuko da.
14. Bestalde, Alazne buruan korapilo izugarria duela egongo da. Hiru edo lau urte zeramatzan taxuzko gizon bat ezagutu gabe eta orain, berriz, kolpetik bi tokatu zaizkio.

15. Beñat ospitaleko ohean esnatuko da hurrengo goizean. Gertatutako guztiaren atzean Jon egon dela ohartuko da. Sandra bisitan joango zaio ospitalera eta alta eman eta etxera eramaten dutenean ere ondoan izango du uneoro.
16. Bitartean Kepa bere gauza pertsonalak hartu eta ostatura bizitzera joango da. Han dagoela Alazneren deia jasoko du eta berarekin harreman serio bat hartzeko konpromisoa hartuko lukeen galdetzen dio emakumeak. Kepak lasai pentsatzeko pare bat eguneko epea emateko eskatuko dio, egun batzuen buruan betiko tabernan elkartzea adosten dutelarik.
17. Alazne Keparen zain tabernan dagoen bitartean, bere burua gehiago estimatzen ikasi behar duela ohartuko da, ezin duela Keparekin erlazio bat hasi beste aukerarik ez duelako edo bakarrik amaitzeko beldur delako. Hortaz, Kepa iritsitakoan, dena bukatu dela esango dio; honen harridurarako.
18. Telefonoaren hotsak esnatuko du Beñat, ertzaintzatik deituko diote, Jon Frantziako hiriren batera ihes egiteko asmotan zebilela Hendaia-ko tren geltoki batean harrapatu dutela esateko. Pozaren-
pozez, gurasoei deitu eta elkarrekin abiatuko dira aterpetxera, Aitziberri berri ona ematera. Harrera-etxean bazkaltzen geratuko dira eta ostean, Sandrarekin hitz egiteko abagunea izango du. Bakarrik daudela, euren arteko harremanean pausu bat eman eta beraien ezpainen bat egingo dute lehen aldiz.

Egituraketa

Obrak hurrenkera kronologikoari eusten dionez gero, narrazioa lineala da. Hala ere, noizbehinka iraganera jotzen du; beraz, esan dezakegu, ipuinaren haria lineala den arren, iraganera saltoak edo *flashback*-ak aurki ditzakegula tarteka. Gainera, bukaera irekia du, hots, ekintza puntu batera helduz amaitzen da nobela, baina gertaerek edo pertsonaiaren bizitzek segi dezakete beste batean.

Bestalde, aipatu beharra dago izenburua duten hiru zati handitan banaturik dagoela istorioa, eta orokorrean zenbakitutako kapituluka dagoela egituratua.

Pertsonaiak

Triangelu irristakorra liburuan, pertsonaiak garrantzi handikoak dira istorioaren garapenerako. Hona hemen esanguratsuenak edo aipamen berezia merezi duten pertsonaiak:

Kepa. Pertsonaia nagusietako bat dugu baita narratzaileetako bat ere. Berrogei urte inguruko gizona dugu, Maiterekin ezkondua eta bi alabaren aita, Libe eta Eider. Ile beltza du eta pare bat eguneko bizarra darama normalean. Umore garratza erakusten duen arren, samurra da eta entzuten daki. Altzari fabrika batean egiten du lan. Itxuraz bederen familia bizimodu egonkorra du, baina ezkon bizitza gorabeheratsua darama, emaztearekiko urrun sentitzen da. Bere umeak izugarri maite ditu eta emaztea estimatzen badu ere dagoeneko ez du maite. Bikotekidearekin eta alabekin duen harremana zaintzen nahiko lan izango du.

Beñat. Protagonistetako bat eta narratzaileetako bat dugu hau ere. Berrogei urte inguruko gizona dugu, telefonia enpresa handi batean lan egiten duen maila ekonomiko altuko ezkongabea. Hitz gutxitan, bakarrik bizi da, lanean murgildua. Metro eta laurogei inguru, planta onekoa eta ilehori ederra du, ondo moztua. Suediarra edo danimarkarra ematen du itxuraz. Begi tristeak ditu, zerbait galdu edo berreskuratu ezin duenak ageri dituenak. Bizarra ere ezin hobeto moztuta darama. Bere arrebarekin batera biziko duen korapilo luzea liburuko gertaera garrantzitsuenetariko bat izango dugu.

Alazne. Azken pertsonaia nagusi eta narratzailea dugu. Berrogei urtera heltzear dagoen eta oraindik bakarrik dagoen, hots, bikotekiderik ez duen emakumea dugu. Gerrialde estua du eta begi itxi baina sakonak. Aho handia, ezpain meheak eta kokots fin eta estua ditu. Beldur latza dio bakardadeari, barneko hutsunea beteko dion maitasuna bilatu gura duen ile apaindegiko langilea da. Badaki ez dela emakume erraza; akats asko ditu eta oso pertsonalitate markatua ere bai. Egoskorra, perfekzionista eta urduri samarra ere bada. Pertsonaia honek galduta ikusten du bere burua, bere lanaz nazkatzen hasia da eta ilusioa berpiztuko dion zerbaiten zain egongo da. Kolpean bi gizon ezagutuko ditu eta bidegurutze horren erdian, zalantzaz beteriko erabaki bat hartzera behartuta ikusiko du bere burua.

Maite. Berrogei urte bete berriak dituen emakumea dugu. Keparen emaztea eta bi alabaren ama, Libe eta Eider. Ile luzea erabiltzea atsegin zuen arren, orain lepo parean moztea gustatzen zaio. Ilearen kolorea begien ia berdina du, neguko baso ilun bat bezain beltza. Aurpegi borobila du eta ezpain goxo eta mardulak. Ondo zaindutako hortzak ditu, ez perfektuak, baina bai zuriak eta tarte handirik gabeak. Hamaika urte daramatza Keparekin ezkondua, baina gauzak ez doaz guztiz ondo azkenaldian. Bien arteko harremana gero eta hotzagoa da eta egoeraren

gordinak duela bi urtetik ezkutuan izan duen sekretua aitortzera eramango du.

Aitziber. Emakume gaztea, ezkondua eta lau seme-alaben, Andoni, Ainire, Aloña eta Anderren ama dugu. Beñaten arreba da eta bere bizitzako gorabeherak pisu handia izango dute istorio honetan. Azken aldian, nekatu itxura ageri du, pazientzia eta indarrak berriro berreskuratu nahian ibiliko da pertsonaia hau. Beñati erdi abandonatuta daukala aurpegiratzen dio ahal duen guztietan eta beragandik gero eta urrunago sentitzen da. Harreman hori, ordea, guztiz aldatuko da bere senarrarekin dituen arazoak nebari kontatzen dizkion unetik. Egoera latz honen aurrean, Beñat ezinbesteko sostengua bilakatuko da emakume honentzat eta bien artean arazoari aurre egitea lortuko dute, aldi berean, euren arteko harremana sendotuz.

Jon. Aitziberren senarra dugu, eta hortaz, lau seme-alaben aita. Eraikuntzan egiten du lan. Ez dirudi gizon txarra, alderantziz, onegia dirudi; baina berehala ohartuko dira gainerakoak santutxo plantak egiten dituela, erraz engainatzen duela. Familiako erabaki garrantzitsuenak bere emaztearen bizkarrean uzten dituen gizon horietako bat da. Urruti sentitu izan dute beti Aitziberren familiako kideek. Nahiko arazo edukiko ditu etxean emaztearekiko duen tratua dela medio. Horrekin konformatu ez, eta Beñati ere kalte egin nahiko dio. Egindako minaren ondoren, Frantziako hiriren batera ihes egiteko asmotan ibiliko da, baina ez du bere helburua burutzerik izango.

Sandra. Hogeita bederatzi urteko emakume katalana dugu. Bartzelonan jaio zen baina izatez bere aita brasildarra da. Hasiera batean isila eta lotsatia ematen duen arren, konfiantza hartu orduko erraz zabaltzen den horietakoa da. Neska interesgarria da oso, apala eta gauzei buelta gehiegi emateko ohitura duena. Akats handia du, ez du bere buruan nahikoa sinesten. Ile beltza dauka eta begi berde eta handiak ditu. Gorputzez mardula da, gizena izatera iritsi gabe. Aitziberren antzeko egoera pairatu izanak batuko ditu bi emakumeak eta adiskide onak bilakatuko dira. Bestalde, Beñat eta bien artean harreman berezia sortuko da, adiskidetasunetik haratago doana.

Baina hauez gain, badira pertsonaia gehiago ere, hona hemen gainerakoak:

- Alaitz: Alazneren ahizpa.
- June: Alaitzen alaba (ia hamar urtekoa).
- Libe: Maite eta Keparen hiru urteko alaba.
- Eider: Maite eta Keparen zazpi urteko alaba.

- Eugenia: Beñatekin batera lan egiten duen idazkaria. Zuzen betetzen du bere lana, astiro baina akatsik gabe. Ez ditu urruti hirurogeiak, jubilatzeke gertu dago. Beñatek estimu handitan du.
- Rogelio: Beñatek lan egiten duen telefonia enpresako zuzendaria. Metro eta hirurogeiko gizona, burusoila ia erabat eta berrogeita hamar urte ingurukoa.
- Miren: Maiteren lagun mina.
- Mikel: Mirenen mutil laguna eta abokatua.
- Andoni: Jon eta Aitziberren seme zaharrena, hamar urtekoa.
- Ainire: Jon eta Aitziberren alaba, sei urtekoa.
- Aloña: Jon eta Aitziberren alaba, bost urtekoa.
- Ander: Jon eta Aitziberren seme gazteena, hiru urtekoa.
- Eneko eta Miren: Libe eta Eiderren lagunak.
- Mainer: Eneko eta Mirenen ama.
- Saioa: Alaznerekin ile apaindegian lanean dabilen neska gaztea.
- Olatz: Hogeita hemeretzi urteko emakumea, Alazneren lagunik onena.
- Antonio: Aterpetxeke zuzendaria, berrogeita hamar bat urte izango dituen gizonezkoa.
- Mariela: Aterpetxean dagoen emakumeetariko bat. Atzerritarra da eta prostituta.
- Ingrid: Aterpetxean dagoen emakumea. Ilehoria da eta irribarre politekoa. Hogeita hiru urte ingurukoa, txikia alturaz baina gorputz politekoa. Paraguaykoa da izatez baina bi urte daramatza Euskal Herrian dagoeneko.

Baliabideak

Eleberri honetan baliabide ugari erabili ditu idazleak, pertsonaien arazo eta kezkek irakurleari helarazi eta hau hausnarketara bultzatzea bilatu du. Espresaera aldetik, narrazioa da nagusi, baina sentimenduen deskribapenek eta elkarrizketek ere garrantzia eta indar handia dute obra honetan. Barne-bakarrizketaz jozitako liburua dugu, batez ere sentimenduak irakurleari erraztasun handiagoz igorri ahal izateko. Gainera, sentimenduen deskribapenak ez ezik, pertsonaien deskribapenak ere ugariak dira.

Hizkuntza eta idazkera aldetik, konplikaziorik gabeko idazkera du. Euskara gozo eta sana erabiltzen du, batere artifiziorik gabea. Estilo aldetik, gainera, landua dela esan daiteke. Ez du hizkuntza mota berezi bat bilatu liburua idazterako orduan. Ulertzeko liburu erraza da, berdin irakurri dezake hamasei, berrogeita bost edo hirurogeita hamar urtetako pertsona batek. Ez da adin bakarrera mugatzen den liburua.

Bestetik, narratzaile mota aipatzea ez legoke gaizki. Izan ere, narratzaile anitzak dira, hots, pertsonaia bakar baten ordean, hainbat pertsonaia dira gertaerak, arrazoiak eta iritziak kontatzen dizkigutenak. Nobelan hiru narratzaile bereizten ditugu eta hirurak dira narratzaile protagonista. Hau da, narratzaileak pertsonaietako batzuk dira eta beraiei gertatzen zaiena ezagutu eta kontatuko digute. Horregatik, ekintzetan esku hartzen duenaren ikuspegitik ezagutuko ditugu gertaerak. Gramatikalki beraz, lehen pertsonan hitz egiten dute, bai iraganeko istorioa kontatzen duten tartetean, bai ildo nagusietan.

Baina zalantzarik gabe eta baliabideei dagokienez, liburu honetan, aipamen berezia zor zaie tropo edo figurei. Maila semantikoko baliabideak; beste era batera esanda, hitzen esanahiarekin lotura duten baliabideak non nahi aurki ditzakegu, hala nola, konparazioa, metafora, pertsonifikazioa eta sinestesia. Bestalde, esamolde ugari ere biltzen ditu. Honela bada, honakoak aurki ditzakegu askoren artean:

KONPARAZIOAK:

«Neguko baso ilun bat bezain beltza.» (33)

«...basamortuko dunen antzeko sabel mugikorra...» (134)

«...lepoa moztu behar dioten arkume batek bezala begiratu dit...» (137)

«...tximista baino azkarrago bueltatu da nire aldera.» (202)

METAFORAK:

«—Gerrikoa estutu beharko dugu...» (29)

«Sugar beroenez betetako begirada esanguratsu bat...» (118)

PERTSONIFIKAZIOA:

«...areto ahaztuetan izaten den usain berberak eraso egin dit...» (132)

«Arriskuaren usaina ere heldu zitzaidan nonbaitetik.» (218)

SINESTESIA:

«...ahots goxoak belarriak laztandu dizkit...» (76)

«Egia erantzun didan irakurri nahi izan dut bere begietan.» (98)

ESAMOLDEAK:

«“*Al mal tiempo buena cara*”» (29)

«Agian beldurrak akabatzen egongo da.» (84)

«Egoerak eskuetatik ihes egin dio...» (109)

«“*Zezenari adarretatik heldu beharko diok*”» (154)

Noizbehinka beste figura mota batzuk ere agertzen dira. Onomatopeiak erabiltzen ditu baina oso gutxitan eta tarteka esaten duenari indar handiagoa emateko letrak errepikatzen ditu. Batzuetan, haurrek presentzia handia dutela kontuan hartuz, ondo esaten ez dituzten hitzak nola ahoskatzen dituzten adierazten digu. Hona hemen adibide batzuk:

«—Kar, kar, kar. Beste kontu bat.» (35)

«—Baaaaiiiiiii!!!!!!» (64)

«—Pila-pila patata totila...» (59)

«—Mahaltu. -Marrastu esan nahi du.» (63)

Horrez gain, aipagarria den beste baliabide bat ere erabiltzen du idazleak. Bereziki Beñaten eta bere aitaren arteko elkarriketetan, euskara batua beharrean, hika erabiltzen du. Hona hemen pasarte bat:

«—Eztabaida bat izan huen bien artean nonbait, eta halako batean, zaplazteko batez lurrera bota zian. Baina ez duk hori bakarrik. Lurrean zegoela pare bat ostiko ere eman zizkioan sabel alde horretan. Momentu batez arnasa hartu ezinik geratu huen. Bertan hil behar zuela pentsatu omen zian.

—Baina zer esaten ari zaren konturatzen zara aita? Hau oso larria da.

—Bazekiat. Bi urtez egon gaituk hire ama eta biok inori ezer esan gabe. Erraza dela uste duk? » (84)

Iritzia

Triangelu irristakorra liburuaren ezaugarri interesgarrienak jaso ondoren, literatur lan on ona dela ondorioztatu daiteke. Izenburuak berak ematen du pistarik eleberri honetan aurkituko dugun istorioari buruz. Izan ere, tituluak iradokitzen duen metafora abiapuntutzat hartuta eraiki du bere istorioa Iñigo Ibargurenek. Istorioa hiru pertsonaia nagusiren inguruan eraikita dago; hortik dator beraz triangeluarena. Hasieran pertsonaiak ez dira ezagutzen baina denborarekin elkar ezagutzen joango dira eta beraien artean arazoak sortuko dira. Hortik, beraz, irristakorra kontzeptuarena.

Gaia guztiz era interesgarrian landu du idazleak, nahiz eta argumentu edo gertaera asko eta pilaturik izan. Pertsonen arteko harremanak dira indar gehien dutenak baina immigrazioaren fenomeno edo tratu txarren zauri irekia ere agertzen dira, gaur egun gizarte honetan puri-purian dauden gakoak. Hala ere, pil-pilean dauden gaiak aukeratu izana inolako helburu etikorik gabe egindako hautua izan da. Ahalik eta objektiboen azaltzen da eta horren ondorioz, edonori gusta dakioken liburua da.

Irakurlea liburua eskuetan hartu bezain laster istorioan murgiltzeko arrazoia, ordea, sentimenduak azaltzeko duen abilezia dela esango genuke. Horretarako, eguneroko bizitzako hainbat gertaera lantzen ditu. Izan ere, eleberri honetako pertsonaiak “guztiz errealak” direla esan

daiteke, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte eta horrek irakurleari hurbiltasuna igortzen dio, honela, irakurle oro identifika daitekeelarik egoera horiekin.

Egunerokotasunean erabiltzen ditugun zenbait adieraren noizbehinkako agerpenak ere gertutasuna eskaintzen dio irakurleari. Nobela hau, oso aberatsa da baliabide estilistikoei erreparatuz gero eta, figura hauek, irakurleari sentimenduak igortzeko erabiliko dira gehienbat. Gainera, liburu irakurterraza da, gustura eta jakin-minez irensten den horietakoa. Istorioaren amaiera badakigula usteko dugun arren, ezustekorik ez da faltako.

Bestalde, liburu honek irakurlea gogoetara bultzatzeko gaitasuna du. Irakurleari, liburua irakurtzen dagoen heinean, nobelan azaldutako zenbait egoeraren aurrean nola jokatu lukeen hausnartzeko aukera ematen dio. Horrez gain, gure inguruan dauden pertsonak zenbateraino izan daitezkeen ezezagunak konturatzeko beta ematen du. Geure burua guk baino hobeto ez duela inork ezagutzen konturatzeko balioko digu eta baita geure buruan gehiago sinesten ikasi behar dugula ohartzeko ere.

Hala ere, baditu bere akatsak. Sarritan akzioa falta du, eta kontaera astiroegi joaten da debaldeko deskribapenetan eta xehetasunetan galduta. Horrez gain, zenbait gauza hainbatetan errepikatzen dituenek, aspergarria suertatzen da batzuetan. Amaiera oso agerikoa izatea izan daiteke beste alderdi bat. Beharbada, irakurleak, harrigarriagoa den zerbait esperoko du, baina ez du aurkituko. Istorioa kontatzeko beharrezko informazio asko ematen du, eta liburua amaitzeko, berriz, orrialde gutxi erabiltzen ditu.

Laburbilduz eta esandakoa kontuan hartuta, hainbat sentsazio sorrarazten dituen nobela aparta dugu honakoa, irakurtzea benetan merezi duen horietakoa. Eleberri lasaia da, hunkigarria, gorabehera handiz josia eta bereziki irakurleentzat gozagarria. Nobela edo eleberriak gustatu eta pil-pilean ditugun gaiei buruz irakurri nahi izanez gero hauxe da aukera dezakegun liburu aproposena.

Bibliografia - Webgrafia

Triangelu irristakorra, Iñigo Ibarguren. Gaumin.

Elhuyar Hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/triangelu-irristakorra/triangelu-irristakorra.pdf>
- http://issuu.com/deia.com/docs/ortzadar_____270713
- <http://www.diariovasco.com/v/20130622/cultura/inigo-ibargurenen-hirugarren-nobela-20130622.html>
- <http://www.gaumin.com/inigo.html>
- <http://uztarria.com/aktualitatea/1371806266>
- <http://uztarria.com/aktualitatea/1371891675>
- <http://www.gaztezulo.com/kritikak/liburuak/triangelu-irristakorra>
- http://www.gaumin.com/liburuak_triangelu.html
- <https://docs.google.com/file/d/0BzGie6lLK8h1QnNxdHZEdmVldFU/edit>
- <http://ikasgela.santurtzieus.com/mod/lesson/view.php?id=17186&pageid=2067&lang=es>
- <http://es.slideshare.net/Oihanetxebarria/baliabide-estilistikoak-2>
- http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=326&lang=eu&layout=lth_detail&search=egitura&view=frontpage
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/triangelu-irristakorra/triangelu-irristakorra.jpg>